


Euskal AEko Merkataritza eta konponketako sektorean 131 mila pertsona ari ziren lanean pandemiaren aurretik, 2019an, guztizkoaren ia % 12

Hamarretik seik txikizkako merkataritzan lan egiten zuten, nahiz eta handizkako merkataritza izan gehien fakturatu zuena, sektoreak guztira fakturatutakoaren erdia baino gehiago, alegia.

2019an, COVID-19a iritsi aurreko azken urtean, Merkataritza eta konponketaren sektoreak 35.537 milioi euro fakturatu zituen eta 131.000 pertsona izan zituen lanean Euskal AEn, okupatu guztien % 11,9, alegia, Eustaten datuen arabera.

2017arekin, konparazioa egin ahal izateko azken urtearekin, alderatuta, sektorearen negozio-zifran igoera % 3,7koa izan da, eta enpleguan, % 0,2 jaitsi bada ere, ez da aldaketa esanguratsurik izan. Negozio-zifrari dagokionez, adieraz daiteke 2014tik % 2 inguruko, edo gehiagoko, igoerak hauteman direla, eta 2019ko 35.537 milioi euro horiek ezagututako serie historikoko fakturaziorik handiena izan direla.

Euskal AEko Merkataritza eta Konponketako okupatuen banaketa eta negozio-zifra. 2019



Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Sektoreko **establezimenduen tamainari** erreparatuz, alde handiak ikusten dira. Estraturik txikiak, 1-9 enplegu artekoak, behera egin du bai fakturazioan (-% 3,7), bai enpleguan (-% 4,2). Hamar eta berrogeita bederatzi enplegu artekoak % 4,2ko hazkundera izan du langile-kopuruan eta % 8,9koa salmentetan. Berrogeita hamar enplegu eta gehiengokoak, berriz, % 7,9ko gehikuntza izan du enpleguan eta % 11,9koa fakturazioan. Hori guztia 2017ko datuekin alderatuta.

Horrela, establezimendu txikiak (asko jota, bederatzi enplegu) establezimendu guztien % 94,3 dira, eta langileen % 56,3 eta fakturazioaren % 41,6 dute Euskal AEn; establezimendu ertainak (10-49 enplegu artekoak) establezimenduen % 5,2 dira, eta enpleguen % 28,5 eta fakturazioaren % 41,7 dute; eta, azkenik, establezimendu handiak establezimendu guztien % 0,5 dira, eta langile guztien % 15,3 eta salmenten % 16,7 dute.

Merkataritza eta Konponketa sektorearen aldagai nagusiak, enplegu-geruzaren arabera. 2019

	Establezimendu kopurua			Landun-kopurua			Fakturazioa		
	Balioa	Osoaren %	Aldakuntza 2017 (%)	Balioa	Osoaren %	Aldakuntza 2017 (%)	Balioa (milaka €)	Osoaren %	Aldakuntza 2017 (%)
Guztira	37.433	100,0	-5,8	130.971	100,0	-0,2	35.536.850	100,0	3,7
1etik 9ra	35.307	94,3	-6,3	73.709	56,3	-4,2	14.777.743	41,6	-3,7
10retik 49ra	1.956	5,2	3,3	37.286	28,5	4,2	14.812.886	41,7	8,9
50 edo gehiago	170	0,5	10,4	19.976	15,3	7,9	5.946.221	16,7	11,9

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Lurraldeei dagokionez, 2019an Arabak izan du hiru lurraldeetako bilakaerarik onena bi adierazle hauetan, eta bertan % 8,2 egin dute gora salmentek eta % 1 enpleguak; bestalde, Bizkaian % 3,4 egin dute gora salmentek eta % 0,2 egin du behera enpleguak; eta, azkenik, Gipuzkoan % 2,1 egin dute gora salmentek eta % 0,6 egin du behera enpleguak.

Gehikuntza horiekin, Bizkaiak 18.071 milioi euro fakturatu zituen guztira, guztizkoaren % 50,9; Gipuzkoak, 11.490 milioi eta % 32,3 eta Arabak 5.976 milioi eta Euskal AEko % 16,8.

Enpleguari dagokionez, Bizkaian merkataritza-sektorean 68.753 pertsona ari dira lanean, Gipuzkoan 43.108 eta Araban 19.110; zifra erlatiboetan, Bizkaian guztien % 52,5 ari dira lanean, Gipuzkoan % 32,9 eta Araban gainerako % 14,6.

Aldagai nagusiak lurralde historikoka (mila euro). 2019

	Euskal AE	Aldakuntza 2017 (%)	Araba/Álava	Aldakuntza 2017 (%)	Bizkaia	Aldakuntza 2017 (%)	Gipuzkoa	Aldakuntza 2017 (%)
Landun-kopurua	130.971	-0,2	19.110	1,0	68.753	-0,2	43.108	-0,6
Negoio zifraren zenbatekoa guztira	35.536.850	3,7	5.975.940	8,2	18.071.001	3,4	11.489.909	2,1
Hornidurak	26.647.533	3,2	4.504.641	7,8	13.508.366	3,0	8.634.526	1,3
Pertsonal gastuak	3.961.264	3,7	596.903	6,1	2.045.654	3,2	1.318.707	3,3
Ekitaldiaren emaitza	1.531.194	34,7	340.288	29,5	731.634	41,4	459.272	28,8
Merkataritza-marjina salmenten aldean % (*)	24,5	0,3	24,2	0,3	24,9	0,2	24,2	0,7

(*) Portzentajeazko puntuen aldea

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Sektoreak lortutako salmenten ataleko merkataritza-marjinari dagokionez -birsalketako merkantzien salmenta garbien balioaren gaineko merkataritza marjina gordinaren proportzioa—, 2017koarekin alderatuta 0,3 hamarrenetan handitu da eta % 24,5era iritsi da. Ez da alderik ikusi Gipuzkoaren eta Arabaren artean, bietan marjina % 24,2koa baita, nahiz eta lehenengoan igoera 0,7koa den eta bigarrenetan 0,3koa. Bizkaiko merkataritza-marjina zertxobait handiagoa izan da, zazpi hamarrenetara, hain zuzen ere, eta % 24,9ra iritsi da eta aurreko bi urteetako 0,2 puntuko igoera izan du.

Txikizkako merkataritzan hamar langiletik seik lan egiten dute eta handizkakoak sektoreak guztira fakturatzan duenaren erdia fakturatu du

Sektore hau hiru **jarduera-dibisio** nagusitan egituratzen da: **Ibilgailuen salmenta eta konponketa**, **Handizkako merkataritza eta bitartekariak** eta **Txikizkako merkataritza**

Hiru dibisioen bilakaera positiboa izan da 2019an fakturazio-bolumenari dagokionez, eta ezberdina enpleguari dagokionez.

Ibilgailuen salmenta eta konponketa dibisioa izan da bilakaera positiboena izan duena negozio-zifran, % 5,5eko hazkundea, hain zuzen ere, baina enpleguan zertxobait jaitsi egin da (-% 1,1). Sektore honek guztizko enpleguaren % 9,4 izan du eta merkataritzaren guztizko fakturazioaren % 9,5.

Dibisio honetan azpimarratzekoa da *Motordun ibilgailuen salmenta*; izan ere, negozio-zifraren % 63,5 fakturatu du eta dibisioko enpleguaren % 33 izan du. Talde honen fakturazioak % 9,8 egin du onera 2017koarekin alderatuta, eta enpleguan % 7ko gehikuntza izan du.

Bestalde, **Handizkako merkataritza eta bitartekarien** dibisioak sektoreko salmenten % 53,1 eta enpleguaren % 31,6 izan ditu, eta negozio-zifran % 4,9ko hazkundea izan du eta langileen kopuruan % 2,1ekoa. Dibisio honetako talde handienak *Handizkako beste merkataritza espezializatua (1)* eta *Elikagaiak, edariak eta tabakoa* dira; izan ere, bien artean dibisioaren % 61,7 fakturatu dute eta guztizko enpleguaren % 47,6 izan dute. Hala ere, lehenengoak hobetu egin ditu bai negozio-zifra (% 7,8) bai enplegua (% 7), eta bigarrenak, berriz, atzera egin du fakturazioan (-% 1,7), % 3,9 gora egin duen arren enpleguan.

Merkataritza eta Konponketaren aldagai nagusiak, jarduera adarraren arabera (mila euro). 2019

	Landun-kopurua			Negozio zifraren zenbatekoa guztira			MCV(*)
	Balioa	Osoaren %	Aldakuntza 2017 (%)	Balioa	Osoaren %	Aldakuntza 2017 (%)	
Merkataritza eta konponketa	130.971	100,0	-0,2	35.536.850	100,0	3,7	24,5
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	12.343	9,4	-1,1	3.375.469	9,5	5,5	17,8
Ibilgailuak saltzea	4.076	33,0	7,0	2.143.702	63,5	9,8	9,5
Motordun ibilgailuak iraurarazi eta konpontzea	6.353	51,5	-2,8	758.712	22,5	-0,8	.
Ibilgailu motordunen ordezkotze piezen eta osagarrien merkataritza	1.710	13,9	-9,2	428.947	12,7	0,1	32,2
Motozikleten salmenta, mantentze-lana eta konponketa	204	1,7	-19,7	44.108	1,3	-18,6	24,3
<i>Handizkako merkataritza</i>	41.322	31,6	2,1	18.870.734	53,1	4,9	22,1
Merkataritzako bitartekariak	4.753	11,5	-2,7	501.376	2,7	12,2	.
Nekazaritzako lehengaien eta animalia bizien handizkako merkataritza	534	1,3	0,6	313.444	1,7	-1,1	17,0
Elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza	9.696	23,5	3,9	4.391.315	23,3	-1,7	20,6
Etxean erabiltzeko artikuluen handizkako merkataritza	6.321	15,3	-2,3	2.848.135	15,1	8,8	27,8
Informazioaren teknologietarako eta komunikazioetarako ekipoen handizkako merkataritza	1.311	3,2	-8,7	801.781	4,2	-1,6	21,3
Beste makineria, ekipa eta hornidura batzuen handizkako merkataritza	7.681	18,6	3,4	2.434.661	12,9	8,6	29,9
Espezializatutako handizkako beste salerosketa batzuk	9.951	24,1	7,0	7.250.760	38,4	7,8	18,7
Espezializatu gabeko handizkako merkataritza	1.075	2,6	-0,6	329.262	1,7	-5,7	33,1
<i>Txikizkako merkataritza</i>	77.306	59,0	-1,2	13.290.647	37,4	1,7	29,6
Saltoki ez-espezializatuetako t.m	24.793	32,1	2,1	4.545.405	34,2	-2,0	26,0
Elikagaien, edarien eta tabako produktuen txikizkako merkataritza	13.073	16,9	-2,3	2.021.063	15,2	2,5	26,1
Ibilgailu industriarako erregaien txikizkako merkataritza	2.058	2,7	4,8	1.167.653	8,8	23,0	5,0
Informazioaren teknologietarako eta komunikazioetarako ekipoen handizkako merkataritza	2.148	2,8	-0,4	294.291	2,2	-3,4	24,7
Etxean erabiltzeko artikuluen handizkako merkataritza	8.191	10,6	-1,4	1.244.977	9,4	1,0	35,9
Kulturarako eta aisialdirako artikuluen txikizkako merkataritza	3.942	5,1	-1,2	560.845	4,2	8,7	32,2
Beste artikuluen batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan	21.104	27,3	-4,2	3.212.289	24,2	0,7	41,7
Txikizkako merkataritza salmenta postuetan eta azoka txikietan	783	1,0	-6,0	52.715	0,4	-10,7	42,0
Establezimenduetan eta azoka txikietan egiten ez den txikizkako merkataritza	1.214	1,6	-8,9	191.409	1,4	-10,8	43,0

(*) Merkataritzamarjina salmenten aldean

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Txikizkako merkataritzaren dibisioa langile gehien duena da, sektore enpleguaren % 59 baitu, eta guztizkoaren % 37,4 fakturatu du eta bere negozio-zifrak % 1,7ko hazkundera izan du.

Txikizkako merkataritzaren baitan *Establezimendu ez-espezializatu*etako txikizkako merkataritza (2) taldea da gehien fakturatu duena (% 34,2) eta enplegu gehien dituen (% 32,1), baina fakturazioak % 2 egin du behera 2017arekin alderatuta, enpleguak % 2,1 gora egin arren. Dibisio honetan garrantzi handiena duen bigarren taldea *Beste artikulu batzuen txikizkako merkataritzarena* (3) da, eta bere fakturazioak % 0,7 egin du gora eta enpleguak % 4,2 behera; horrela, bere fakturazioa txikizkako merkataritzako fakturazioaren % 24,2koa izan da eta enplegua % 27,3koa.

Azkenik, **Txikizkako merkataritzaren** merkataritza-marjina % 29,6ra iritsi da eta **Handizkako merkataritzarena** % 22,1era, **Ibilgailuen salmenta eta konponketa** dibisioaren marjina % 17,8koa izan da.

Oharrak:

1. Hartzen ditu barnean erregaien handizkako merkataritza, metalena, eraikuntza-materialena, burdineriarena, iturgintza-materialena, produktu kimikoena, beste produktu erdilandu batzuen, txatarrarena, etab.
2. Hartzen ditu barnean, besteak beste, azalera handiko saltoki eta erostetxeak.
3. Hartzen ditu barnean jantzien txikizkako merkataritza, oinetakoena, farmazia-produktuena, produktu mediko eta ortopedikoena, kosmetiko eta higiene-produktuena eta erloju eta bitxiena.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62